

2017.02.13
LURRALDE ANTOLAMENDUKO 37. bilerako AKTA
A.G., K.F., A.R., X.I., I.A.

Gaiak:

1. Frontoiaren irisgarritasuna

- Laguntzak eskatzeko Aldundiak ateratako deialdiaren epea hi honen 23an bukatzen denez, erabaki da aukera garestiena, hau da, frontoiko zorua 2 m igo plazaren mailarekin berdintzeko eta azpikoa erabiltzeko moduan utzi, 400.000 €-tako aurrekontuarekin.
- Aldi berean, parte-hartze prozesu bat irekiko da, herritarrei aukerak azaldu eta komenigarriena iruditzen zaiena azal dezaten.

2. Landaola - Landa Garapenerako diru-laguntzak

- Hasiera atean ezezko notiziak iritsi dira egin ziren bost eskaerentzako. Ikusi behar behin-betiko erantzuna iristen denean.

3. Beko kaleko irteera

- Inguru horretarako hirigintza-arauak aldatzeko, Orube abokatuak eginiko proposamena aztertzen da. Industrialdea bultzatzen ez bada, lan horien karga Udalaren gain geratuko zenez, egin beharko liratekeen obren aurreproiektu bat eskatzea erabakitzen da.

4. Industrialdeko argiak

- Orain jakingo da herriko argiterian zenbat aurreztu den farolen aldaketekin. Egokia izan dela ikusiz gero, industrialdekoei ere aldaketa proposatuko zaie. Horretarako laguntza publikoak ba dira, nahiz eta orain epez itxita egon.

5. Hondakin organikoen tratamendua

- Aste honetan edukiko dugu hondakin organikoa herrian bertan kudeatzeko behar den behin-betiko txostena. Konpostatzea orain dauden guneak hedatuz eta, bhar izanez gero, berriak eraikiz egingo da. Hasieran teknikarien bat kontratatu beharko da, baina, epe ertainera, herritarren batentzako lana sortu daiteke.

6. Bizikleten gordailua

- Materialetako zeuden aurrekontuak berrituko dira eta auzolanean eraikiko da behar dena.

7. Eskolako eskaerak

- Urrian egindako eskaerak zintzilik geratu ziren, baina batzuk eginda daude. Xabik hitz egingo du beraiekin kontuak eguneratzeko.
- Bitartean aprobetxatuko da ea kotxeen erabilera zuzenduko duen ordenantza martxan jarri dezakegun aztertzeke.

8. Langileen ordu-kontuak

- Langileak sartu dituzten ordu-kontuen zerrenda aterako da, aztertzeke modua egin eta ahal dena egokitzeko.